



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 24a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egite aldera Nafarroan baliatu beharreko gizarte babesari eta enpleguari buruzko politika orokorraren ingurukoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (13. or.).
- Jabeldura, jasangarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 24/2008 Foru Legeko 1. artikulua aldatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. HHorren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta sindikatuekin, oinarrizko errenta nahiz gainontzeko prestazio osagarriak lortzeko baldintzei buruz informatzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen abian jar dezan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.2 jarduketan ezarritakoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuei buruzko zenbait neurri har ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala egoki dezan Tuterako Reina Sofia Ospitaleko bosgarren solairua eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (20. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara jakitea beharrezkoa izan dadila euskaraz lan egiten duten ikastetxe publikoetako langile ez irakasleen lanpostuak betetzeko deialdietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Museoei buruzko Foru Legea gara dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europako goi mailako hezkuntza-gunearen eraikuntzaren arabera erreformen aplikazioa geldiaraz dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin sinatutako hitzarmena, Osasun Sistema Nazionalen Erditze Normala Artatzeko Estrategian ezarritako gomendioak garatzeko, bete dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (26. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten du, eta Senatuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen du. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarrera irmo, eragingarri eta arduratsua izan dezan, Nafarroako erakundeek kudeatu eta jaso beharreko gai eta eskumen guztiak Espainiako Gobernuari exijitzerakoan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren seme kutun izendatu baitzen Tomás Domínguez Arévalo, Rodeznoko kontea. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (29. or.).
- Adierazpen instituzionala, Aitaren Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (30. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa dela-eta duen asmoari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egin (31. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Etxeko Ospitaleratze Unitatearen egoerari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egin (32. or.).
- Galdera, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia finantzatzeko hitzarmen bat sinatzeari dagokionez Espainiako Gobernuak duen jarrera dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (32. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkorik jartzen Nafarroako Gobernuak liburuzainek lanaldi-murrizketak eta bajak hartzen dituztenean, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (33. or.).
- Galdera, jakiteko Uharte eta Burlata arteko Arga ibaiaren bazterrean egiten ari diren obretarako ingurumen-baimenik eman al du Landa Garapenerako eta Ingurumen Departamentuak, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egin (33. or.).
- Galdera, jakiteko zer urratsak eman dituen Nafarroako Gobernuak hizkuntza programaren eskaera asetzeko, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (34. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2009rako duen aurreikuspena, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatiaren gastuari, obren lizitazioari eta obrak egiteari dagokionez, Ion Erro Armendáriz jaunak egin (35. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarritzko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (35. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (36. or.).
- Galdera, Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egin (37. or.).
- Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarritzko errenta ukatzeko espedientei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (38. or.).
- Galdera, Lizarrako iparraldeko saihebidetaren gaineko azterlanari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (38. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egin (39. or.).

- Galdera, PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (40. or.).
- Galdera, Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (41. or.).
- Galdera, ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (41. or.).
- Galdera, Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (42. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2009ko martxoaren 2an hartutako erabakiaren bidez, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan izanik azken xedapenetan lehena oneste-ko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legeari buruzkoa baita, eta kontuan izanik orobat Erregelamenduko 151.3 artikuluan ezarritakoa, Nafarroako Gobernuak igorritako proiektutik banakatu eginen da Ondareari buruzko Foru Legeari dagokiona, zeina beste Foru Lege proiektu gisa tramitatuko baita, Erregelamenduko 152. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko apirilaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal-ko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak jorratu zituen berritasunetako bat Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoa arautzea izan zen –VIII. tituluan; araututa gelditu zen une horretatik aurrera, honakoek osatzen dute ondare hori: enpresa-entitate publikoak, sozietate publikoak eta gainerako sozietate-partaidetzak.

Nolanahi ere, foru lege horrek, aipatutako forma juridiko bakoitzaren kontzeptua definitu eta haien araubide juridikoa zehazteaz gain, 104. artikuluan –“enpresa-ondare publikoaren berregituraketa”- ezarri zuen Nafarroako Gobernuak aukera izanzen zuela, beste ekintza batzuen artean eta ondarearen arloan eskudun den departamentuak proposatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitateko akzioak eta sozietate-partaidetzak bere sozietate publikoetan sartzearabakitzeko; arau horretan berean zehaztu zuten, gainera, Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-ondarearen titularitate aldaketak eta barne berrantolaketak bete beharko lituzketen baldintzak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa izeneko sozietate publikoa sortzeari buruzko foru lege honen bitartez, aurrerago adieraziko den moduan gauzatuko da legez emandako ahalmen hori, xedea izanik, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berariazkoa sortzea, kontuan hartuta menpean dituzten administrazio publikoek, beraien tresnak baitira, horien kudeaketa eta baliabideen erabilera zaindu behar dituztela; bestetik, interes publikoko jarduerak sustatzea, ezertan

galaz gabe, Espainiako Konstituzioaren 128. artikuluan jarduera ekonomikoko ekimen publikoari buruz aurreikusten denari erreparatuta, industria eta merkataritzako jardueretan aritzea ere, jardue- ra horien izaeragatik beragatik merkatuko araei eta errentagarritasun ekonomikoaren printzipioari men eginez, betiere.

Foru lege honen helburua ez da soilik, lehen aipatu bezala, arrazionalizatu eta ahalik eta onena bilakatzeko bide emanen duten sistemak eta testu- inguruak sortzea, baizik eta horiek lortzeko erabili beharreko irizpideak ere ematea, Nafarroako enpresa publikoen sektorearen gardentasunean eta prozesu iraunkorren ezarpenean oinarrituta, aukera eman dezaten hainbat helburu erdiesteko, besteak beste, enpresen kudeaketa publikoa korporazioen erantzukizun sozialaren printzipioetara egokitzea; balio publikoa nahiz pribatua sortzea; kudeaketaren jarraipena eta jarraibideak zehaztea eta jarduteko politika bateratuak ezartzea; sozietateetan neurri egokiko egiturak ezartzea, enpresa ekintza publikoa gainezkatzeko eta barreiatzea sai- hesteko; jarduera publikoak garatzeko politikak eta beste zenbaitetan errentagarritasun ekonomikoaren printzipioei men egin beharra, zenbait sozietatek merkatuari begira egotearen ondorioz; langile- rien arloko politiken aplikazioa; partaidetza handiena Nafarroako Foru Komunitatearena duten sozietateak ente instrumental gisa mugatzea, eta azkenik, enpresen arteko lehia libre sustatzea.

Helburu publiko orokor horiek behar bezala betetzeko eman da foru lege hau, ekintzak eta antolaketa bideak honela egituratuta dituena: hamaika artikuluko -bi titulutan bilduta- lau xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, lau azken xedapen eta eranskin bat.

I. titulua zazpi artikuluko ditu, eta bertan foru lege honi zentzua eta izena ematen dion funtsezko lehen ekintza xedatzen da, hau da, "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L." sortzen da, zuzenean Nafarroako Gobernuaren menpe dagoen sozietate publiko nagusia, zeinaren helbururik behinena, foru legeak bere eranskinean zedarritzen dituen akzio eta sozietate partaidetzak eskuratu ondoren, partaidetza duen sozietateen antolaketak eta koordinazioa bideratu eta betearaztea izanen baita, esleitzen zaizkion eginkizunekin bat.

I. titulua osatzeko, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.aren araubide juridikoa biltzen duten arauak ezartzen dira bertan, hurrenez hurren honakoak erregulatzeko –aplikatzekoak diren beste arau batzuen aipamena eginda–: kudeaketa organoak, jarduera betetzeko izanen dituen baliabide ekonomikoak, kontabilitate, aurrekontu, zerga eta langileen kontrataziorako araubi-

dea, eta sozietate publiko honek ondarearen arloan eskuduna den departamentuari aldizka igorri behar dion informazioa.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.aren sorrera xedatu eta araubide orokorra araututa, II. Tituluan, bi kapitulutan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-ondare publikoa, bertan sartutakoa, berrantolatze-ko ekintzak ezarri eta egituratzen ditu.

Horrela, lehenengo eta behin, arautzen da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titularitate zuzenekoak diren akzioak eta sozietate-partaidetzak, foru lege honen eranskinean jasotako sozietateen kapitalaren adierazgarri direnak, osorik edo hein batean; bigarrenik, berariz aurreikusten da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k, sozietate nagusiaren izaera hartu ondoren eta beharrezkoak diren berrantolatze ekintzen ondorioetarako, eskatu ahal izanen die bere partaidetza duten sozietateei sozietatea antolatze-ko beste edozein ekintza bete dezatela, hala nola, eraldaketa, bat egitea, zatiketa, likidazioa, ekintza horien helburua izanik enpresa-ondare publikoaren zati zehatz horren jarduerak arrazionalizatzea.

Foru lege honetan aurreikusirik dago akzio eta sozietate-partaidetza zehatzak sartzeko Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n, baina horrek ez du kentzen aurrerago gehiago sartzeko arau honetan ageri diren ondorioak aplikatuta.

Bestalde, berritasun garrantzitsu bat sartu da, alegia jarduerako bi sektore ezarri direla, administrazioarena eta merkatuarena, eta bertan sailkatuko dira partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.arena duten sozietateak –haien jarduerak, gehienbat eta modu egonkorrean, interes publikoak (Administrazioaren Sektorea) edo industria eta merkataritzaren arlokoak (Merkatuaren Sektorea) diren kontuan harturik-, foru lege honen oinarrian dauden printzipioak, hau da, antolaketa, baterako kudeaketa, balio publiko edo pribatua sortzea eta kontrola, bermatzeko; berme publikoko printzipio horiek garrantzi handiagoa dute Administrazioaren Sektorean. Sozietate nagusiari dagokio sozietateak sektore batean edo bestean sailkatze-ko proposamena, foru lege honetan zehaztutako irizpideak aplikatuta. Ondorio hauetarako, sektore bakoitzaren arauak eta jarduketako printzipioak ezartzen dira, sozietate bakoitzak betetzen duen jarduera zertara bideratzen den, administrazioa edo merkatura, hortik modu logikoan eta berez sortzen diren arau eta printzipioak, hain zuzen ere.

I. TITULUA**Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa**

1. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean eta merkataritzako legerian aurreikusitakoarekin bat, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortuko du, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak osorik harpidetutako kapitalekoa, pertsona bakarreko sozietate mugatuaren izaera hartuko duena, bere nortasun juridikoarekin eta bere sozietate-xedearen esparruan aritzeko gaitasun osoarekin.

2. Haren izena "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L." izanen da, eta hasierako kapitala 250.000 eurokoa.

3. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k mugagabeko iraupena izanen du, eta eratzeko eskritura egilesten den egunean hasiko da jardunean.

4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k ez du atxikirik izanen eta ez du beteko aginte publikoaz baliatzea dakarren ahalmenik; foru lege honek, sozietatearen estatutuek, zuzenbide pribatuko arau zibilek, merkataritzakoek eta lan arlokoek, aplikatzekoak direnek, zuzenduko dute, bai eta ondare, aurrekontu, kontabilitate, finantzen kontrol eta kontratazioaren arloetan aplikatzeko den araudi administratiboan ezarritako berezitasunek ere.

5. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. ondarearen arloan eskuduna den departamentuari atxikita egonen da.

2. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren eginkizunak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k eginkizun nagusi hauek izanen ditu:

1. Oro har:

a) Eskubide, akzio eta sozietate partaidetza mota guztiak eta edozein motatako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren gainerako tituluak harpidetu, bereganatu, eskuratu, administratu, gozatu, eskualdatu eta besterentzea.

b) Ondarearen arloan eskuduna den departamentuak aholkularitza eta txostenak ematea sozietateen arloko kudeaketarako -administrazioa, antolaketa, egitura eta lege aldetikoa-.

c) Mota guztietako azterlan ekonomiko eta sektorialak egitea.

d) Nafarroako Gobernuak, erabakiaren bidez, ezartzen dizkion guztiak, sozietatea sortuz bete nahi diren helburuen barruan.

2. Horrez gain, partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren duten sozietateei dagokienez:

a) Sozietateen funtzionamendua eta jarduerak koordinatzea, haien organoen bitartez, eraginkortasun, eragimen eta balio-sorkuntzaren irizpideak aintzat hartuz.

b) Sozietateen kudeaketa eta egoera ekonomiko finantzarioa modu egokian eta unean unekoan ezagutzeko aukera ematen duten tresnak eta teknikak garatzea.

c) Aginduak, jarraibideak eta prozedurak diseinatu, onartu eta haien jarraipena egitea, arlo hauetako lotutako gaietan: aurrekontuak, inbertsio planak, plan estrategikoak, finantzaketa eta baliabide berekien egiturak, bazkide politikak, barne kontrola, kalitatea, homogeneizazioa, administrazio araubidea, barne antolaketa, langileen arloko politikak, korporazioaren irudia, informazioaren teknologiak, korporazioaren erantzukizun soziala eta beste edozein, hori guztia ezertan ukatu gabe Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen esparruan, aurrekontu, finantzaketa eta ekonomia eta kontabilitateko kontrol eta informazioaren arloetan eman ditzakeen arauak eta jarraibideak.

Aurreko agindu, jarraibide eta prozedurak partaidetzako sozietate bakoitzean ezarri eta garatuko dituzte haren organoek.

d) Mota guztietako finantza eragiketa aktibo eta pasiboak diseinatu eta egitea, zein den ere haiek gauzatzeko bidea, bonuak, zor-agiriak eta antzeko tituluak jaulkitzea barne, eta halaber diruzaintza eta zorra kudeatzeko beste tresna batzuk ere, hari eta partaidetzako sozietateei dagokienez. Era berean, sozietate horiek itundutako finantza eragiketak bermatu ahal izanen dituzte.

e) Aholkularitza eta laguntza teknikoa.

f) Mota guztietako azterlanak, txostenak, ebaluazioak, memoriak eta analisiak egitea, kudeaketari, egiturari, dimentsionatzeari eta egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzkoak.

g) Partaidetza duen enpresen komunikazio politikak koordinatu eta bateratzea.

3. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren kudeaketa organoak.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren kudeaketaz eta administrazioaz administrazio kontseilu bat arduratuko da; kontseilu horretako kideak ondarearen arloan aplikatzeko den araudian aurreikusitakoarekin bat izendatuko dira.

2. Administrazio kontseiluko kideen erantzukizun eta bateraezintasun araubidea, eta haren zuzendaritza nagusiarena edo gerentziarena ere, arlo honetan aplikatzeko den foru araudian eta merkataritzari buruzko legeetan xedatutakoa izanen da.

4. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren baliabide ekonomikoak.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren helburuak betetzeko behar diren baliabideak hauetatik etorriko dira:

a) Sozietatearen hasierako kapital ekarpena, bai eta sozietateak egindako kapital gehikuntzak.

b) Haren ustiatze emaitzak eta haren ondarearen eta finantza aktiboen produktuak, errentak eta gehikuntzak.

c) Partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateetatik jaso ohi dituen diru-sarrerak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. berak zehazten dituen kontzeptu, prozedura eta zenbatekoarekin bat.

d) Partaidetzako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren tituluen eta partaidetzen balioaren itzulketa sozietatearen eragiketak betetzean.

e) Partaidetzako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren tituluen eta partaidetzen salmentaren emaitza.

f) Partaidetzako sozietateetatik edozein titulu edo negozio juridikoren truke lor daitezkeen diru-sarrerak.

g) Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako diru-esleipenak.

h) Nafarroako Gobernuaren, haren organismoen edo erakundeen mandatuetatik datozen ekarpenak.

i) Edozein administrazio publiko eta erakundearen diru-laguntzak eta transferentziak.

j) Europar Batasunean ezarritako funtsetatik edo nazioarteko nahiz Espainiako funts publiko edo pribatuetatik jaso ditzakeen laguntzak edo maileguak.

k) Finantza entitate publiko edo pribatuekin itundutako finantziazio eragiketak.

l) Legez, erregelamenduz edo estatutuz aitortutako beste edozein baliabide.

2. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako berme eta abalen onuradun izan daiteke.

5. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren kontabilitate, aurrekontu eta zerga araubidea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren kontabilitate, aurrekontu eta zerga araubidea Foru lege honetan, haren estatutuetan, merkataritzako zuzenbidearen arauetan eta aplikatzeko den araudi administratiboan xedatutakoak zuzenduko du.

6. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren langileriaren arloko araubidea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren langileen kontratazioa Lan Zuzenbideari lotuko zaio.

Edozein kasutan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k behar den prozedura ezarriko du, bere langileen hautaketa berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat egin dadin ziurtatzeko, goi zuzendaritzako langileen kontratazioa izan ezik, lan harreman mota honi datxekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

7. artikulua. Informazioa emateko betebeharra.

Nafarroako Gobernuak erabaki bidez zehaztuko du zein den Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k ondarearen arloko eskudun den departamentuari aldizka igorri beharko dion informazioa.

II. TITULUA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartuko den Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa ondarea berrantolatzeko ekintzak

I. KAPITULUA

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n akzioak eta partaidetzak sartzea

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko sozietateen kapitalaren adierazgarriak diren akzioak eta partaidetzak sartzea.

1. Nafarroako Gobernuak, ezertan ukatu gabe merkataritza eta administrazio arloko legeekin bat beharrezkoak diren eragiketa eta negozio juridikoak, erabakiko du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzeneko titularitateko akzio eta partaidetzak, foru lege honen eranskinean ageri diren sozietateen kapitalaren adierazgarriak direnak, osorik edo hein batean.

2. Sozietate publiko berri bat sortzen denean edo edozein entitateren akzioak edo partaidetzak zuzenean eskuratuz gero, Nafarroako Gobernuak erabakiko du nola sartuko diren Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n, hala egiten bada.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzio eta partaidetzen titularitateak aldatzeko ekintzak ondarearen arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitako moduan eginen dira, eta ondorio berberekin.

9. artikulua. Sozietateen aldaketak eta berregituraketak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duen sozietateetako organoei eskatu ahal izanen die bat egin, zatitu, eraldatu, desegin eta likidatzeko eragiketak eta sozietatea berregituratzeko beste edozein bete ditzaten.

II. KAPITULUA Jarduera sektoreak

10. artikulua. Partaidetzako sozietateen antolaketa jarduera sektoreen arabera.

1. Bere partaidetzako sozietateak antolatu eta kontrolatze aldera, eta ezertan ukatu gabe bazkide den aldetik merkataritzaren arloko legeekin bat izan ditzakeen ahalmenak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k proposatuko du partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateak bi jarduera sektoretan sailkatzeari: Administrazioaren sektorea eta merkatuaren sektorea. Proposamen horrek ondarearen arloan eskuduna den departamentuak onesten duenean izanen ditu ondorioak.

2. Administrazioaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta modu egonkorrean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat edo haren kontura interes publikoko jardueretan aritzen direnak.

3. Merkatuaren sektorean sartuko dira, eta beraz hurrengo artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako berezitasunen menpe geratuko, nagusiki eta

modu egonkorrean industriaren edo merkataritzaren arloko jardueretan aritzen direnak.

4. Sozietate bakoitza bi jarduera sektore horietako batekin lotzeko, kontuan hartuko da sektorean sartzea eragin zuten baldintzek denboran irauten duten, eta beraz, baldintza horiek aldatuz gero berriz eginen da sailkapena.

5. Sozietateak Administrazioaren Sektorean sartzeak ez du nahitaez berarekin ekarriko ohiko funtzionamendua diru-laguntza publikoen mende egotea.

11. artikulua. Administrazioaren sektorea eta merkatuaren sektorea.

1. Administrazioaren Sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau hauek bete beharko dituzte:

a) Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Legearen aplikazioaren menpe geldituko dira, haren 2.1.e) artikuluekin bat.

b) Bere langileen kontratazioa Lan Zuzenbideari lotuta eginen da, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioak errespetatuz hautapen prozesuetan, goi zuzendaritzako langileen kontratazioa izan ezik, lan harreman mota horri datxekion elkarrenganako konfiantzan oinarrituko baita.

c) Haren jarduera Parlamentuaren kontrolaren menpe geldituko da, arloan aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusitako moduan eta iraupenarekin.

2. Merkatuaren Sektorearen barrenean dauden sozietateek, besteak beste, arau eta jarduketa printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Haien kudeaketaren xedea, batez ere, balioa eta etekin ekonomikoak sortzea izanen da, errentagarritasunaren printzipioarekin bat.

b) Haren jarduera merkatuko arauak zuzenduko dute.

c) Ezin izanen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ente instrumentalaren izaera aitortu Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikuluari jarraikiz.

Xedapen gehigarriak

Lehen xedapen gehigarria. Sozietateen inbentarioa.

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k honakoak biltzen dituen inbentario iraunkor bat egin, onetsi eta mantendu beharko du:

a) Partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, berea duten sozietateak.

b) Haren partaidetza zuzena eta gutxiengokoa duten sozietateak.

c) a) letran sartutako sozietateetako baten partaidetza zuzena duten sozietateak.

2. Partaidetza handiena, zuzenean nahiz zeharka, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.rena duten sozietateak zein jarduera sektoretan sartuta dauden adierazi beharko da inbentarioan.

3. Inbentario horrek ez du erregistro publikoaren izaera edukiko, eta bertako datuak barne kudeaketarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren beraren politikak zehazteko informazio lagungarria izanen dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Zerga onurak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k honako zerga onura hauek izanen ditu Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan:

a) Kapitala eratu eta gehitzeko sozietatearen eragiketarako salbuespena.

b) Sozietatearen kapitala gehitzea ez dakarten ekarpenetarako salbuespena.

c) Bere helburuak betetzeko, lurra eta gaineko higiezinak erosteko eragiketarako salbuespena, bai eta Balioen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1998 Legearen 108.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten entitateen funts berekien partaidetzak eskuratzeko direnenerarako ere.

d) Maileguak, kredituak edo abalak bermatzeko sozietatearen alde ematen diren berme mota guztietarako salbuespena.

Hirugarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergaren espezialitateak.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ri Sozietateen gaineko Zergaren berezitasun hauek aplikatuko zaizkio:

a) Salbuetsirik egonen da enpresen kapitalaren edo funts berekien partaidetzaren adierazgarri diren balioen eskualdaketan lortutako errentei dagokienez, zein den ere haietan duen partaidetzaren portzentajea edo gradua eta zenbat denbora eduki dituen.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako kenkaria edo 62.1 artikuluan aurreikusitako salbuespena –errenten jatorriaren arabera– aplikatu ahal izanen die dibidenduei eta, oro har, partaidetzakoak dituen sozietate edo entitateetatik datozen mozkinen partaidetzei, zein den ere partaidetzaren portzentajea eta akzioak edo partaidetzak zenbat denbora eduki diren.

Laugarren xedapen gehigarria. Sozietateak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei atxikitzea.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. eratzeak eta, ondoren, sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzio eta partaidetzak bertan sartzeko ez du aldatuko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuen kontrol funtzionala eta eraginkortasunarena; horrek ez du esan nahi aurrerago ez dela aukerarik izanen egungo atxikipenak aldatzeko, aplikatzekoak diren ondareari buruzko legeekin bat.

Atxikipen hori ukatu gabe, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren eta bertan sartutako sozietate publikoen jarduna, komunikazio publikoaren, publizitatearen eta irudi korporatiboaren arloetan, gai horietan eskuduna den departamentuak horri buruz ezartzen dituen jarraibideei lotuko zaie.

Xedapen iragankorrak

Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. sortu eta eratzeko epea.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. sortu eta eratzeko eta behar diren tramiteak eginen ditu.

Bigarren xedapen iragankorra. Sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.n sartzeko epea.

Foru lege honen eranskinean ageri diren sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak eta partaidetzak eranste epea lau hilabetekoa izanen da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ri eratzen denetik hasita.

Hirugarren xedapen iragankorra. Enpresa publikoen sektorea antolatu eta berregituratzeko plana. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.k, eratu eta urtebeteko epean, gehienez ere, korporazioan sartutako sozietateak antolatu eta berregituratzeko proposamen bat egin eta Nafarroako Gobernuari igorri behar dio.

Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen aldaketak.

Bat. I. kapituluaren izena aldatu da, hau izan dadin:

“I. kapitulua. Aplikazio esparrua”

Bi. 2. artikuluko f) letra aldatu da, testu hau izateko:

“f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.”

Hiru. 81. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute zorra jaulki edo kreditua hartzeko, salbu eta aurrekontu ekitaldi berean hitzartu eta bertan behera uzten diren kreditu eragiketak badiira.”

Nafarroako Gobernuaren baimena Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta, baimena eman ahal izanen dio Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ri beste aurrekontu ekitaldi batean hitzartu eta bertan behera uzten diren kredituak harpidetzeko edo zorra jaulkitzeko, kopuru zehatz batera mugatuta, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ren beraren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zenbait sozietate publikoren beharretan oinarrituta.

Beste aurrekontu ekitaldi batean formalizatu eta bertan behera uzten diren gainerako eragiketak, zorra jaulkitzekoak edo kredituak hitzartzekoak, Nafarroako Gobernuak baimendu beharko ditu berariaz.”

Lau. 82. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate

publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute abalak emateko.

Baimen hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da, eta eragiketa zehatz bakoitzari buruzkoa edo horien multzo bati buruzkoa izan ahalko da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposatuta, abalak emateko baimena eman ahal izanen dio Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.ri, kopuru zehatz batera mugatuta, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publiko batzuei dagokienez.

Abalak emateko gainerako eragiketarako Nafarroako Gobernuaren baimen berariazkoa beharko da.”

Azken xedapenetako bigarrena. Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legearen aldaketa.

3.bis artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“Partaidetza handiena, zuzena nahiz zeharkakoa, Foru Komunitateko Administrazioarena edo haren organismo autonomoena duten enpresetan, nagusiki eta modu egonkorrean industria edo merkataritzaren arloko jarduerak betetzen ez dituztenetan, 3. artikuluan adierazitako neurrian eta bertan zehazturikoari jarraituz aplikatuko da lanaldiaren berrantolaketa eta murrizketa. 3. artikuluan Negoziazio Mahai Orokorrari buruz egiten den aipamena enpresetako zuzendaritzek eta kasuan kasuko ordezkariak sozialek hitzartze sozialerako egiten dituzten bilerei buruzkoa dela ulertuko da.”

Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ahal izanen ditu.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera hartuko du indarra.

ERANSKINA

Sozietatearen kapitalaren adierazgarri diren tituluak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.an sartuko dituzten sozietateak eta Nafarroako Foru Komunitateak horietan duen zuzeneko partaidetza

SOZIETATEAK	Nafarroako Foru Komunitatearen zuzeneko partaidetza
Nafarroako Autobideak, S.A. (AUDENASA)	%50,00
Nafarroako Berrikuntza eta Teknologia Agentzia, S.A. (ANAIN)	%100
Nafarroako Garraio eta Logistika Agentzia, S.A.	%100
Baluarte Nafarroako Kongresuen Jauregi eta Auditorioa, S.A. (BALUARTE)	%100
Nafarroako Ubidea, S.A. (CANASA)	%10,55
Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea, S.A. (CNAI)	%100
Iruñeko Garraioaren Hiria, S.A. (CTPSA)	%97,62
Ingurumen Kudeaketa-Nafarroako Mintegiak eta Basoberritzeak, S.A.	%100
Zorren Kudeaketa, S.A. (GEDESA)	%100
Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Institutua, S.A. (ICAN)	%100
Nekazaritzako Institutu Teknikoa eta Kudeaketarena, S.A. (ITGA)	%100
Abeltzaintzako Institutu Teknikoa, S.A. (ITGG)	%100
Iruñeko Hornidurarako Merkatu Zentralak, S.A. (MERCAIRUÑA)	%9,00
Nafarroako Finantziarioa eta Kontrola, S.A. (NAFINCO)	%99,99
Nafarroako Administrazioarako Kudeaketa, S.A. (NGA)	%100
Nafarroako Toki Azpiegiturak, S.A. (NILSA)	%100
Nafarroako Industria Ingurumena, S.A. (NAMAINSA)	%100
Nafarroako Zerbitzuak, S.A. (NASERSA)	%94,01
Nafarroako Industriadako Lurzorua, S.A. (NASUINSA)	%71,48
Nafarroako Etxebizitzetarako Lurzorua, S.A. (NASURSA)	%100
Nafarroako Herri Lanak eta Komunikazioak, S.A. (OPNATEL)	%100
Pirinio Mendebaldeko Patataren Erakundea, S.A. (OPPOSA)	%33,33
Iruñeko Planetarioa, S.A. (PLANETARIO)	%100
Nafarroako Ureztalurrak, S.A.	%100
Nafarroako Ubidearen Ureztalurrak, S.A.	%100
Nafarroako Garapen Sozietatea, S.A. (SODENA)	%79,78
Nafarroako Elkarren Bermerako Sozietatea (SONAGAR)	%20,52
Nafarroako Inbertsioak eta Azpiegiturak Sustatzeko Sozietatea, S.A. (SPRIN)	%100
Katastro lanak, S.A. (TRACASA)	%0,004
Nafarroako Etxebizitzak, S.A. (VINSA)	%100

Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2009ko martxoaren 2an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Kontuan izanik azken xedapenetan lehena onesteko gehiengo osoa behar dela, Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legeari buruzkoa baita, eta kontuan izanik orobat Erregelamenduko 151.3 artikuluan ezarritakoa, Nafarroako Gobernuak igorritako proiektutik banakatu egingen da Ondareari buruzko Foru Legeari dagokiona, zeina Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 103. artikulua aldatzeko Foru Lege proiektu gisa tramitatuko baita.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126., 151. eta 152 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko apirilaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honen bidez aldatzen da sozietatearen kontzeptua, orain arte Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluen b) letran jasoa dena, hemendik aurrera sozietate publikoak izanen baitira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo erakunde autonomoen partaidetza, zuzena nahiz zeharkakoa, ehuneko berrogeita hamarrekoa edo handiagoa dutenak; halatan, sozietate publikoa definitzen duen irizpidea bateratu eta kontzeptu bakar batean biltzen da, eta aldi berean saihesten ondareari buruzko foru araudiaren arabera sozietate publikoak diren gainerakoek izaera galtzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L. sortzearen eta "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa" izeneko sozietatea sortzeari buruzko foru legean aurreikusitako gainerako akzio eta sozietate-partaidetzak eskuratzearen ondorioz. Gainera, komeni den bezala, kontzeptuak homogeneizatzea lortzen da, batez ere Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin, arau hori ere egokituta baitago kontzeptu berri horretara aipaturiko foru legearen azken xedapenetako lehenaren bitartez.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikuluko b) letra aldatu da, testu hau izateko:

"b) Sozietate publikoak. Halakotzat hartzen dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde publikoek sozietatearen kapitalean duten partaidetza, zuzena, nahiz zeharkakoa, ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa denean".

Azken xedapenetako lehena. Foru lege hau erabateko gehiengoko foru legetzat kalifikatzea.

Foru lege hau gehiengo absolutua behar duen foru legea da, eta izaera hori dauka, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 45.6 artikuluen arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egite aldera Nafarroan baliatu beharreko gizarte babesari eta enpleguari buruzko politika orokorraren ingurukoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egite aldera Nafarroan baliatu beharreko gizarte babesari eta enpleguari buruzko politika orokorraren ingurukoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Gobernuari ondoko jabeldura aurkeztu dio, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

CCOO sindikatuak eginiko Nafarroako Egoera Sozioekonomikoari buruzko txostenak agerian utzi du gaur egungo gizartean gizarte-babesgabezia egoera asko daudela; izan ere, 2.242 familia baino gehiagok ez dute inolako dirusarrerik —ez lansari-

rik, ez pentsiorik, ez prestaziorik edo langabezi-saririk—, eta 4.468 familia baino gehiagotan ez dago lanean ari den kide bakar bat ere, lan egiteko moduan egon arren.

Foru erkidegoan, langabeziak % 8,12ko tasa gainditu du; horrenbestez, Gobernuaren lehen helburuak izan beharko luke langabeziaren ondorioz sortzen diren egoerei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak abian jartzea.

Pertsona langabetuaren profilak —40 urtez gorakoa, lana aurkitzeko zailtasunak dituen— Gobernua behartu behar du sortzen ari diren beharrizan berriei erantzutera. Alde batetik, lan merkatutik baztertu berrien beharrizanei erantzutera, eta, bestetik, beharrezkoak diren baliabideak jartzera, langabetuak prestakuntzaren bidez birziklatu ahal izateko eta berriro lan merkatuan sartzeko ekoizpen-esparru berrietan.

Txostenaren beste ondorioetako bat da Gobernuak onartutako enplegu-erregulazioko espedienteen zati handi bat ez dela gauzatzen. Horrek esan nahi du gehienetan langileak beldurtzeko besterik ez direla eskatzen, eta horrek zalantza jartzen du lan arloko agintaritzaren zorrotasuna haiek onartzerakoan.

Krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egite aldera Nafarroan baliatu beharreko gizarte babesari eta enpleguari buruzko politika orokorraren inguruko jabeldura.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Jabeldura, jasangarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, jasangarritasunaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Gizarte honetan abiada bizian bizi gara, eta "zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto" goiburua gizartearen bultzada oinarrizkoenen funtsezko ardatz bilakatu da, bai eta gizateriak hurrengo hamarkadetan aurre egin beharko dion arazo larrienetakoa ere. Egoera horretan, mundu global baten eremu guztietan eragina izan dezakeen gaitasunaren prebentzio-sendagai gisa agertzen da jasangarritasunaren kontzeptua.

Jasangarritasuna da espezien baten eta bere inguruan dituen baliabideen arteko oreka. Hala ere, ez dago inguru hurbilenera begiratzea besterik, gure erkidegora berera, ikusteko harmonia horren haustura bat dagoela maila guztietan: maila ekonomikoan, ingumenean, maila sozialean...

Kontsumoa, kontsumismoa, mundu globalizatuaren motor bilakatu dira. Hala ere, gaur egun kri-

sian dagoen munduko sistema ekonomikoak oinarri duen gehiegizko kontsumismo horrek hausten du gizakiaren eta hark eskura dituen baliabideen arteko oreka. Ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dira, baina hondakinak ere bai. Eta galdetu daiteke ba al dagoen mugaren bat hondakin horientzat. Onartezina da gaur egun helburua izatea CO2 isuriak gutxiago handitzea eta ez isuri horiek murriztea. Eta egia bada ere energia berriztagarrien erabilera handitzen ari dela, berriztagarriak ez direnena oraindik gehiago handitzen da.

Jasangarritasunak bildu behar ditu edozein administrazioaren politika orokorrak, mugikortasunetik hasita azpiegiturretara edo lurraldearen plan-gintzara, baina bai eta berezko eredu ekonomikoa eta kudeaketa eredu ere. Izan ere, esate baterako, badirudi administrazioek, teoriarik gutxienez, defendatzen dutela garraio publiko eta kalitatezkoak bilatzea, ibilgailuen erabilera eta kutsadura murrizteko; baina, egia esateko, krisi egoera honetan, ondasun horiek eskuratzeko neurriak sustatzen dira, alde aurretik hausnarketarik egin gabe, ibilgailu-enpresei inolako baldintza edo mugarik jarri gabe jasangarritasunari dagokionez, eta arlo horretan zerbitzu publikoak bultzatzeko beharra kontuan hartu gabe.

Azken finean, esan dezakegu egiaztatu dela gaur egungo eredu ekonomikoa, kontsumismoan oinarritua, ez dela jasangarria, eta beharrezkoa dela eredu birformulatzea; hori dela eta, bereziki nabarmendu behar dugu jasangarritasunean sakondu behar dugula, oreka globalaren berme izan dadin.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jasangarritasunaren arloan duen politika orokorra ezagutzen aldera.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuaren Osasun Plan Estrategikoaren bosgarren ardatzean, zeinak Osasunaren Arloa izena baitu, proposatzen da 3. ekintzako ildo bat, non egin beharreko ekintzak zehazten diren. Ekintza horietako bat da, besteak beste, buru-osasunari buruzko plan bat egitea Nafarroako Foru Komunitatean.

Espezialitate horretako profesionalek azterlan zehatza egin dute, Osasun Departamentuak eza-

gutuko duen moduan. Lan horretan zerbitzuen katalogo zabal bat jasotzen da; alde batetik, egonaldi ertain eta luzeko errehabilitazioa eta errehabilitazio programak jasotzen dira, eta, bestetik, psikogeriatria unitateak, hondatze kognitiborako tratamendu-proposamenak, eguneko ospitaleak, farmazia duten unitate zentralak, terapia okupazionala, irakaskuntza eta ikerketa.

Bestalde, uste dugu gaur egungo San Franzisko Xabierkoa zentroaren historia zoro-etxeekin lotuta dagoela Nafarroan, alegia, buruko nahasteak zituzten pertsonak sartzen ziren zentroekin, eta, hori dela eta, estigmatizatutako tokia da. Kontua da eremu horretan pertsonak eta lanbide desberdinetako langileek elkarrekin bizi ahal izatea eta,aldi berean, era askotako laguntza jaso ahal izatea.

Gure ustez, profesionalek 2008an eginiko lana kontuan hartu beharrekoa da. Eta Osasun Plan Estrategikoan jasotzen den moduan, uste dugu zehazgabea eta murrizta dela gehien kezkatzen gaituzten alderdiei dagokienez, zeinak baitira prebentzioari buruzkoak. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan San Franzisko Xabierkoa Ospitale Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zentro horren gaur egungo izena, "San Franzisko Xabierkoa" aldatzea eta Ezkaba Zentroa izena jartzea, Nafarroako osasun sare publikoko beste arreta zentro bat den aldetik.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, 24/2008 Foru Legeko 1. artikulua aldatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat aurkez dezan, 24/2008 Foru Legeko 1. artikulua aldatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran premiaz eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

José Luis Rodríguez Zapatero jaunak hauteskundeetan hartutako konpromisoa, alegia, PFEZaren aitortpena egin behar duten zergadun guztiei 400 euro itzultzekoa, Nafarroan aplikatzeko erabakiak, bai eta hori gure erkidegoan aplikatzeko adostu zen formulak berak ere, eztabaida bizia piztu zuten bere garaian neurri horren komenigarritasuna eta Nafarroan gauzatzeko eman zen justifikazioa zirela eta.

Legebiltzar honetan onetsitako formula gauzatzearen ondorioz gutxi gorabehera 66 milioi euro gutxiago bilduko dira, eta hori zama ekonomiko garrantzitsua da gaur egun, beharizan sozialak premiazkoak baitira Nafarroako sektore behartsu-

enetan. 2008ko azarotik 2009ko martxora bitartean, 12.000 pertsona geratu dira langabezian.

Gaur egun, Nafarroako 37.000 langile daude langabezian, eta arazoak dituzte laguntzak eta etorkizuneko itxaropenak direla eta.

Bizi dugun krisiaren ondoriozko egoera larri horren aurrean, beharrezkoa da dirusarrerei eta gastuei buruzko lehentasunak ezartzea, bai eta gastua bideratzea lanpostua galdu ondoren beren egonkortasuna arriskuan duten sektore eta pertsonen beharizanak asetzea.

Hori dela eta, Nafarroa Baik uste du Zapaterok agindutako doako neurri hori aplikatzearen ondoriozko kostua xede sozialetarako erabili behar dela; hain zuzen, objektiboki administrazioaren laguntzen mendean egon daitezkeen pertsonen laguntzeko. 66 milioi euro horiek bildu eta funts bat sortu behar da laguntzeko, langabezian egonda, lege ezarritako langabezi-saria amaitu eta beren edota haien mendean dituzten pertsonen oinarritzko beharizanak asetzeko beharrezkoak diren baliabideak ez dituztenei.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du premiaz aurkez dezan lege proiektu bat, abenduaren 24ko 24/2008 Foru Legearen 1. artikulua aldatzeko eta Zapatero jaunak 2008ko hauteskunde orokorretan agindutako 400 euroen neurria itzultzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du funts bat osa dezan, zeinaren xedea izanen baita hilean 700 euroko laguntza ematea langabezian egonda, lege ezarritako langabezi-saria amaitu eta beren edota haien mendean dituzten pertsonen oinarritzko beharizanak asetzeko beharrezkoak diren baliabideak ez dituztenei.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta sindikatuekin, oinarrizko errenta nahiz gainontzeko prestazio osagarriak lortzeko baldintzei buruz informatzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzaz hitzarmen bat egin dezan Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta sindikatuekin, oinarrizko errenta nahiz gainontzeko prestazio osagarriak lortzeko baldintzei buruz informatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Oinarrizko errenta da oinarrizko premiei aurre egiteko diru baliabiderik ez duten familientzako aldizkako prestazio ekonomikoa. Legeria indardunetan aurreikusiriko beste edozein motatako gizarte baliabide eta prestazio ekonomikoaren osagarri eta ordezkaria da.

Iragan urtean Eskubide Sozialen Gutun Baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatu zen, eta horrek aurrerapen handia ekarri zuen oinarrizko errentarako kontuan hartzen diren baldintza, inguruabar eta zenbatekoei dagokienez. Gure ustez aurrerapen mugatua izan zen, baina, hala ere, adostasuna lortzeko ahalegin handia egin zen prestazio sozial eta ekonomiko baterako eskubidea finkatze aldera.

Horrekin lotuta, egoera ekonomikoak beharrezkoa egiten du administrazio publikoak eskura dituen baliabide guztiak indartzea, herritarrek errazago eskura ditzaten eskaintzen diren prestazioak. Eta egia bada ere zerbitzuen zorroari buruzko argitalpen zabal bat egin zela, beharrezkoa da, gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialean, ahalegin handiagoa egitea, zehazki oinarrizko errentari dagokionez.

Ezagutu ditugun Nafarroako langabezia-tasari buruzko datuen arabera, 37.379 langabe daude; horren esan nahi du langabezia-tasak % 52 egin duela gora, iazko hilabete berarekin alderatuta. Zalantzarik gabe, krisi ekonomikoaren eragina nabarmena izaten ari da.

Kontuan hartu behar da langabetu guztietatik, % 30 inguruk ez duela inolako langabezia-saririk jasotzen, eta hori bereziki larria da beren egoera sozialerako, are larriagoa familia-zama badute eta ohiko etxebizitza ordaintzen ari badira.

Krisi ekonomikoaren ondoriozko datu horien eraginez, orain dela gutxi arte egoera normalean zeuden zenbait gizarte-sektore bazterketa sozialaren arriskuan daude gaur egun. Pobrezia, askotan etxebizitza galtzea, familia- eta gizarte-ingurune gatazkak eta beste hainbat arazo eragiten ari da langabezia.

Era berean, errealitateak erakusten digu lotura zuzena dagoela langabeziaren igoeraren eta oinarrizko errentaren eskaeren artean, eta aurreikusitenez, oinarrizko errentaren eskaera kopuruak nabarmen egingen du gora heldu diren hilabeteetan, bereziki lanpostua galdu duten pertsonen dagozkien langabezia-sariak agortzen dituztenean.

Krisiari aurre egiteko eta lanpostuak sortzeko bestelako neurriez gain, beharrezkoa da eskura dauden baliabideekin langabezia dauden pertsonen laguntzea eta dituzten eskubideei buruzko informazio zehatza ematea, hala, informazio hori ez izateagatik ez diezaioten utzi oinarrizko errenta eta bestelako prestazio batzuk jasotzeko edo ez ditzaten jaso eskubidea hori sortzen duten beharizanak eta baldintzak bete eta hilabeteetara.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak lankidetzan hitzarmen bat egin dezan Nafarroako Enplegu Institutuarekin eta Nafarroako sindikatu guztiekin, Nafarroako Enplegu Institutuak eta sindikatuek informazio zehatza eman diezaieten foru erkidegoko langetuei oinarritzko errentari eta hura jasotzeko baldintzei buruz, bai eta barterketa soziala-

ren arrisku-egoeran dauden pertsonentzako gainerako laguntza osagarri buruz ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki entitateekin lankidetzan abian jar ditzan beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide material eta ekonomikoak, oinarritzko errenta kudeatzeko epeak ahalik eta gehien murrizte aldera.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen abian jar dezan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.2 jarduketan ezarritakoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen abian jar dezan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.2 jarduketan ezarritakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Ikusten ari garenez, krisi ekonomikoak ondorio sozial larriak ditu; hori dela eta, zenbait gizarte-

laguntza aztertzerakoan beharrezkoa da hausnarketa egitea, bizi dugun egoera kontuan hartuta, Nafarroako aurrekontu orokorren eztabaidaren eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren hasierako aurreikuspenak gorabehera. Izan ere, Nafarroako Gobernuak berak zenbaitetan birmoldatu behar izan ditu gure erkidegoko hazkunde ekonomikoari buruzko zenbakiak.

Egungo egoerara egokitzea eta zenbakiak berrikustea etengabeak izan behar dira, Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak abian jartzen dituzten neurriak eraginkorrak izan daitezen.

Horrekin lotuta, agerikoa da orain dela gutxi arte egoera normalean zeuden zenbait gizarte-sektore bazterketa sozialaren arriskuan daude gaur egun. Krisiak langabezia dakar; langabezia, berriz, pobrezia, askotan etxebizitza galtzea, familia- eta gizarte-ingurune gatazkak eta beste hainbat arazo eragiten ari da.

Hasiera batean, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren 2.2.1. jarduketak aurreikusten zuen etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak sustatzea, pasadizokoentzako aterpeak eraiki edo berritzea lagunduz, Iruñean eta Altsasun. Geroago, eta Nafarroako Gobernuak igorritako testua batzordean eztabaidatu ondoren, jarduketa hori Lizarrara eta Tuterara zabaltzea adostu zen.

Cáritasen ustez, "etxerik gabekoen" fenomeno hirian gertatzen da batik bat, gizonezkoak gehiago

dira emakumezkoak baino eta zenbait urtetik hona etorkin asko dago "etxerik gabekoen" artean. Egin diren azterlanen arabera, gizatalde horrek pobrezia pairatzen du, eta horretaz gain, askok familiarekiko harremana hautsi eta mendekotasun handia dute, eta gaixotasun larriak izan ohi dituzte; hortaz, haien osasun egoera oso txarra izaten da, eta okertu egin ohi da, haien bizi-ohituren erruz. Etxerik gabekoen taldeari gehitzen zaio krisia dela-eta gizarte-arazoak dituzten pertsonen multzoa. Hori dela eta, uste dugu etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak abian jartzea premiazkoa dela, eskaera eta egoera kontuan hartuta.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lehenbailehen abian jar dezan Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.2 jarduketan etxerik gabekoentzako aterpetxeei buruz ezarritakoa.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte zerbitzuei buruzko zenbait neurri har ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita gizarte zerbitzuei buruzko zenbait neurri har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Krisiaren ondorio sozialak agerikoak dira. Jende gehiagok eskatuko ditu Foru Administrazioaren gizarte-laguntzak, eta hala adierazten dute oinarrizko errenta jasotzeko eskaerei buruzko datuek.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak baliabide multzo bat izan behar du eskura, ahal bezain handia eta hurbilekoa, baliabide horiek behar dituzten pertsonen eta Administrazio Publikoaren arteko harremana ahalik eta arinena eta emankorrena izan dadin.

Gure ustez, gizarte zerbitzuak dira Ongizatearen Estatuaren oinarrietako bat, bai eta gure gizartearen eta herritarren bizi kalitatearen oinarrietako bat ere. Horregatik uste dugu arrazoizkoa dela gaur egungo egoeran proposatzea larrialdi sozialerako unitateak sortzea Plan Estrategikoan aurreikusitako eta zehaztutako gizarte zerbitzuen barrutietan.

Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuek lan garrantzitsua egiten dute, herritarren arretarako oinarrizko eta hurbileneko osagarria baitira. Baina zerbitzu horrek ordutegi murriztua du eta, hori dela eta, beharrezkoa da arreta zerbitzua zabaltzea, herritarrei eta, bereziki, gizarte-arazoak dituzten pertsoneri errazteko arreta etengabea jaso dezaten eta ordutegi irisgarria izan dezaten.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hiru hilabeteko epean beharrezkoak diren neurriak har ditzan larrialdi sozialerako unitateak jartzeko gizarte zerbitzuen barrutietan. Hala ere, larrialdi sozialerako unitate hauek sortzen hasi diren gizarte zerbitzuen barru-

tiei dagokienez, hitzarmen berariazkoak sinatuko dira haien finantzaketarako.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar ditzan beharrezkoak diren neurri ekonomiko eta aurrekontuei buruzkoak, bereziki bazterketa sozialaren aurka egiteare-

kin zerikusi dutenak, gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz sortzen ari diren arazo sozialei aurre egite aldera.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar bezala egoki dezan Tuterako Reina Sofía Ospitaleko bosgarren solairua eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar bezala egoki dezan Tuterako Reina Sofía Ospitaleko bosgarren solairua eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko laugarren solairura bisita bat egin ondoren, ikusteko nola ematen ari zaien zerbitzu onkologikoa bertan dauden gaixoei, eta departamentuko langileen iritziak entzun ondoren, egiaztatu dut bertan dagoen espazioa eta egin behar duten lanak ez dituztela

betetzen esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Datu interesgarriren bat emate aldera, esan daiteke onkologiako kontsulta bakarra dagoela, eta gaur egun departamentu horretan lan egiten duten bi onkologoek konpartitu egin behar dutela; hori dela eta, bi onkologoek arazo asko dituzte gaixoak behar bezala artatzeko gela bakar batean.

Bestalde, zerbitzu honek, berezkoak dituen gain, beste zerbitzu batzuk ere ematen ditu, baina ez dira ematen halako patologietarako beharrezkoa den intimitatearekin, ez langileek eskatzen dituzten betekizunekin, ez baitago horretarako gune egokirik, ez tratamendu luzeetarako edota transfusioak edo laginak ateratzeak bezalako jarduerak egiteko beharrezkoa den ohe kopururik.

Zerbitzuak bost urte daramatza abian eta, gaixo kopuru txikiarekin hasi bazen ere, urteak pasatu ahala gaixo kopurua nabarmen handitu da. Hori dela eta, uste dut beharrezkoa eta premiazkoa dela gaur egungo egoerara eta eskaerara egokitzea.

Gaixoen behar duten erosotasuna eta tratua- ren diskrezioa zaindu eta laugarren solairuko hematologia-onkologia zerbitzuko langileek zerbitzu hobea emate aldera, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar bezala egoki dezan Tuterako Reina Sofía Ospitaleko bosgarren solairua eta solairu horretara eraman dezan gaixo onkologikoak artatzeko zerbitzua.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara jakitea beharrezkoa izan dadila euskaraz lan egiten duten ikastetxe publikoetako langile ez irakasleen lanpostuak betetzeko deialdietan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita euskara jakitea beharrezkoa izan dadila euskaraz lan egiten duten ikastetxe publikoetako langile ez irakasleen lanpostuak betetzeko deialdietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

159/1988 Foru Dekretuan, euskarak hezkuntza administrazioan izanen duen erabilerari buruzko tituluan, hau esaten da; 21. artikuluan, hain zuzen: "ikastetxe publiko elebidunetan izaten den barne-

araubideko administrazio jarduna, hala nola aktak, jakinarazpenak, ordutegiak, errotulazioa, iragarki-oholean jendearentzat jarritako oharrak eta abar, hizkuntza bietan idatziko dira". "Ikastetxe elebidunetan, jendeak eskatutako administrazio jarduerak, erabiltzaileak eskatutako hizkuntzan eginen dira".

Era berean, 23. artikuluan ezartzen denez, "Nafarroako hezkuntza administrazioa saiatuko da behar diren mekanismoak eta baldintzak ezartzen ikastetxe publiko elebidunek irakasleak ez diren langile gaituak izan ditzaten foru dekretu honen ondoriozko betebeharreri aurre egiteko, eta, betiere, ukitutako langile finkoei lanean ari diren herriko ikastetxeren batean bermatuko zaie lanpostua".

Horiek horrela, ezin da ulertu euskara maila egokia izatea nahitaezko baldintza ez izatea euskara irakasten den zentroetako lanpostu hutsak oposizio-lehiaketan bidez betetzeko deialdietan; esate baterako, Zubiarte Euskaltegiko zerbitzu orokorretako arduradunaren lanpostuari dagokion deialdian.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskara jakitea ezinbesteko baldintza izan dadin euskaraz lan egiten duten zentro publikoetan, hala nola irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan, helduen edo funtzionarioen euskaltegietan edota irakasleei laguntzeko zentroetan, kasu honetan, Zubiarte Euskaltegian.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Museoei buruzko Foru Legea gara dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Museoei buruzko Foru Legea gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako Gobernua premiatzeko Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.10 artikuluan ezartzen denez, Nafarroako Foru Komunitateak "agiritegien, liburutegien, museoen, hemerotekeen eta estatua-ren titulartasunekoak ez diren kultur-gordailurako gainerako zentrozen" gaineko eskumen osoa du.

Bestalde, 58.1.i artikulua dioenez, Nafarroari dagokio Estatuko legeria betearaztea "Estatuaren titulartasuneko agiritegi, liburutegi, museo eta gisako gainerako zentroak, horiek betearaztea Estatuak beretako gordetzen ez badu".

Printzipio horiei jarraikiz, Foru Komunitateak aipatutako alorretako batzuei buruzko berariazko araudia garatu du. Hala ere, museoen alorra dago museoak arautu, sustatu eta bultzatuko dituen lege baten zain.

Badira urte asko esanez lege hori Parlamentu-ria igorriko dela. Hain zuzen, 2005eko bigarren bilkuraldian igortzea aurreikusten zen, Caballero jaunak Miguel Izu parlamentariari emandako erantzun baten arabera.

Legegintzaldi honetan, berriz, behin baino gehiagotan iragarri da aipatu legea bidaliko dela: lehendakariaren inbestidura hitzaldian, Kultura eta Turismo kontseilariaren lehen agerraldian eta ondorengo beste zenbait agerraldietan.

Legegintzaldiaren erdira iritsi garenez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du lehenbailehen bidal dezan legebiltzarrerako museoei buruzko foru lege proiektu bat, Foru Hobetzearen 44.10 artikuluan ezarritakoa garatuko duena eta gure erkidegoko sektore hori arautu, babestu, sustatu eta bultzatzea ahalbidetuko duena.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europako goi mailako hezkuntza-gunearen eraikuntzaren araberrako erreformen aplikazioa geldiaraz dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europako goi mailako hezkuntza-gunearen eraikuntzaren araberrako erreformen aplikazioa geldiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Unibertsitate publikoak, Espainiakoak eta Europa guztikoak, eskaintzen dituzten ikasketen egitura aldatzeko prozesu batean murgilduta daude, "Europako goi mailako hezkuntza-gunea" deiturikoa eraikitzearen esparruan.

Prozesu horrek itxaropenak, egonezinak nahiz erabateko arbuioak sortu ditu unibertsitate komunitatean eta, oro har, gizartean. Bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta unibertsitateko ehunka gazteek parte hartu dute Bolonia Plana aplikatu ez dadin eskatzeko egin diren manifestazioetan.

Europako goi mailako hezkuntza-gunea sortzeko ideari ezin zaio, berez, ezer txarrik egotzi, hezkuntza herritar guztientzat irekita dagoen zerbitzu publikotzat hatzen badu eta bere helburua bada etengabeko prestakuntza, bai garapen pertsonala bai gizarte osoaren garapena lortzeko.

Baina errealitateak helburu desiragarria litzatekeena unibertsitate publikoa merkatuaren interesetara egokitzeko ariketa soil bihurtu du, arriskuan jarri erakunde horren muina bera, merkantilizatu gabeko zerbitzu publiko sortu baitzen, herritarrei prestakuntza akademiko sendoa eta lanerako gaitasun duina emateko.

Erreforma horrek bilatzen dituen balizko abantailak –titulazioen homologazioa, horien barne-itzulgarritasuna, ikasleen, ikertzaileen eta irakasleen mugikortasun handiagoa dira gehien zabaldukoak– ez dute justifikatzen edozein politika mota jartzea abian.

Tasen igoera neurrigabea, beken eredu engainagarri bat sartzea –beka/mailegu deiturikoak, banku-kredituak baino ez baitira–, prestakuntzaren behin-behinekotasuna (gradu orokor berrietan), graduondokoetara iritsiko diren eliteak, irakaskuntza-metodologia berak aplikatzea irakasgai guztietan, Unibertsitateetarako Estatu Idazkaritza I+G+Baren arloko politika ekonomikoaren mende jartzea Zientzia eta Berrikuntzako Ministerio berriaren, unibertsitateen gobernagarritasunean demokrazia ezera bideratutako aldaketak egitea bezalako neurriak ezin dira aplikatu, azaldu edo justifikatu Gobernuak lortu nahi duen balizko onuraren izenean.

Europako unibertsitateak aurre egin behar dio historian izan duen erreforma sakonenari gizarte guztiari ateak ireki zizkionetik, eta erreforma hori ezin daiteke egin alde aurretik egin gabe beharrezkoa den eztabaida soziala, non parte hartuko baitute unibertsitate-komunitateak eta herritarrek.

Horretaz gain, egungo krisi orokor egoerak asko larritzen ditu Bolonia Plana deiturikoaren garapenak berarekin dakartzan arazoak. Gobernuak jarraitzen badu Europako goi mailako hezkuntza-gunea garatzeko eta zabaltzeko ahaleginean behin-behinekotasun finantzario erabatekoa denean eta adostasun sozialik lortu gabe, Espainiako unibertsitate publikoa irtenbiderik gabeko egoera batean murgilduko da, eta horren ondorioak sumaezinak dira.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

- Berehala geldiaraz dezan Europako goi mailako hezkuntza-gunea eraikitzeke egiten ari diren erreformen aplikazioa, hau da, Bolonia Plana deiturikoa.
- Eztabaida zabala abian jartzea hezkuntza-eta gizarte-maila guztietan, egin beharreko alda-

ketei buruzko adostasuna lortze aldera.

- Finantzaketa plan publiko bat aplikatzea Estatu osoan, BPGaren % 2ko gastu errealerira iriste aldera.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin sinatutako hitzarmena, Osasun Sistema Nazionalaren Erditze Normala Artatzeko Estrategian ezarritako gomendioak garatzeko, bete dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin sinatutako hitzarmena, Osasun Sistema Nazionalaren Erditze Normala Artatzeko Estrategian ezarritako gomendioak garatzeko, bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko urriaren 15ean, Osasun eta Kontsumo Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten Osasun Sistema Nazionalaren Erditze Normala Artatzeko Estrategian ezarritako gomendioak

garatzeko. Aipatu estrategia Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluak adostu zuen 2007ko urriaren 10ean, Osasun Sistema Nazionalaren Kalitate Planaren 8. estrategiari jarraikiz.

Estrategia horretan aurreikusuten da hitzarmenak egitea autonomia erkidegoekin praktika kliniko seguruak sustatu eta ebaluatuko dituzten proiektuak bultzatze aldera. Praktika horien artean daude haurdunaldiaren, erditzearen eta erditze ondokoaren arreta zuzena ziurtatzea eta zenbait praktika sustatzea, aurrea hartzeko ekidin daitezkeen umekiaren eta emakume haurdunaren patologiei, jaioberriaren lesioei eta zesarearen eta bajina bidezko erditzearen konplikazioei.

Hala, ekintza horiek gure erkidegoko ondoko ospitaleetan egiten dira: Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitalean, Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalean.

Hitzarmenaren lehen xedapenak hala dio: "Osasun zentro horietan eskainiko zaie haurdun dauden eta arrisku-faktorerik ez duten edo arrisku gutxi duten emakumeei modu naturalean erditzeko laguntza, medikalizatu gabea, ahalik eta eskuhartze txikiarekin, amaren eta umekiaren beharrezko zaintza bermatuta nahi gabeko arriskuak ekidite aldera, autonomia-eskubidea, emakumearen informaziorako eskubidea eta haurdunaldiaren, erditzearen eta erditze ondokoaren arreta-prozesu osoan berak nahi duen pertsonak laguntzeko eskubidea une oro errespetatuta."

Hitzarmenaren laugarren xedapenak, berriz, ondokoa dio:

"Laugarrena.- Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren betebeharrak.- Nafarroako

Gobernuko Osasun Departamentuak zehaztutako helburu bakoitza lortzeko jarduerak gauzatu dituzte, ondoren zehazten den moduan:

a. Haurdun dagoen emakumeari eta bere bikotekeari informazioa emanen die, bai haurra jaio aurretiko kontsultetan, bai erditzerako prestakuntzan, erditze normalaren laguntza naturalari buruz, genero ikuspegia eta gaitasun eta kultura desberdinak kontuan hartuta. Dibulgaziozko materialak prestatuko ditu eta topaketak eta eztabaidak antolatuko ditu, emakumeei eta, oro har, herritarrei zuzenduta, laguntza mota horren onurak ulertarazte aldera.

b. Osasun arloko langileak erditze normalaren arretari buruz sentsibilizatzea eta prestatzea. Prestakuntza programa bat garatuko da, obstetrei zuzendua, bereziki erizaintza espezializatuko langileei (emaginei), eta horren barruan sartuko dira egonaldi laburreko bisitak laguntza mota hori ezarritu duten ospitaleetara, bai eta praktika egokien ereduak ere. Jardunaldiak egitea laguntza mota horretako adituekin.

c. Eskura dagoen ezagutza onenean oinarritutako praktika klinikoak abian jarriko dira, beharrezkoak ez direnak edo kaltegarriak direnak ezabatuko dira, justifikatu gabeko aldagarritasuna murriztuko da eta praktika eraginkorrak bultzatuko dira.

d. Jarduerak koordinatuko dira eta erditzearen arretarako protokolo bat ezarriko da, estrategiako gomendioak jasoko dituen eta foru erkidegoko laguntza sistemak eta praktika profesionalek bete behar dituzten oinarritzko baldintzak eta koordinazioa arautuko dituen.

e. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentroetan ematen den laguntza ebaluatuko da eta horretarako erabiliko dira, besteak beste, estrategian proposatutako adierazleak.”

ko da eta horretarako erabiliko dira, besteak beste, estrategian proposatutako adierazleak.”

Bosgarren xedapenak ondokoa dio: “Jarraipen Batzordea.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko, alde bietako kideak izanen dituen batzorde misto bat osatuko da. Batzorde hori aldeetako batek eskatuta bilduko da, eta behin, gutxienez, indarrean egoteari utzi baino lehen, eta hartzen dituen erabakien akta egingen da. Ondoko pertsonak osatuko dute, gutxienez:”

Seigarren xedapenak ondokoa dio: “Indarraldia.- Hitzarmen honek indarra izanen du sinatzen den egunetik 2008ko abenduaren 15era...”

Azaldutako guztia dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan Osasun eta Kontsumo Ministerioarekin sinatutako hitzarmena, Osasun Sistema Nazionalan Erditze Normala Artatzeko Estrategian ezarritako gomendioak garatzeko, eta erditzen normalarekin zerikusia duten ekintza guztiak gara ditzan ondoko ospitaleetan: Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitalean, Tuterako Reina Sofía Ospitalean eta Lizarrako García Orcoyen Ospitalean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru erkidegoko hurrengo aurrekontuetan beharrezkoa den dirua jar dezan hitzarmen hori betetze aldera ospitaleetako erditze-geletan egin beharreko egokitze-lanak egiteko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an.

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita buru osasunarekin lotutako zenbait jarduketa gara ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, iragan martxoaren 12an eztabaidaturiko buru-osasunaren arloko politikari buruzko jabelduraren ondorioz, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Proposamenaren azalpena

Mozio hau aurreko ostegunean, hil honen 12an, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egindako eztabaidatik heldu da, parlamentu-talde honek aurkeztutako jabelduraren ondorioz.

Sarrera gisa, gogorarazi nahi dugu Osasunaren Munduko Erakundearen arabera osasuna ez dela soil-soilik gaitzik edo gaixotasunik ez izatea, baizik eta ongizate fisiko, mental eta sozial osoa izatea.

Buruko nahasteen kasuak sarri gertatzen dira, eta zama nabarmena ekartzen diete norbanakoei eta familiei; hala:

– Lau pertsonatik batek buru-nahasteren bat izanen du bere bizitzan behin, gutxienez.

– Depresioa da nahaste arruntenetako bat; sei emakumetatik batek pairatzen du, eta, aurreikuspenen arabera, 2020rako gaixotasunik ohikoena izanen da mundu garatuan, bai eta ezgaitasun gehien sortuko dituen bigarren kausa.

– Talde ahul eta baztertuek, hala nola langabe-tuek, etorkinek, ezgaitasunak dituztenek, tratu txarrak jasaten dituztenek eta drogak hartzen dituztenek aukera gehiago dute buru-osasuneko arazoak izateko.

Prebalentzia indize horien ondorioz, adostasun handia lortu da, Europar Batasunak ahalegin handiagoa egin dezan arazo horri lehentasuna emate aldera.

Urtero 20.000 pertsona hartzen dira Nafarroako buru-osasunerako sarean, eta kopurua gora doa urtetik urtera. Nafarroako badu Buru-osasunari buruzko Plan bat, 1986koa, berrikusi eta gaurkotu gabea. Ez dago berriazko finantzaketarik Buru-osasunari buruzko Plana garatu eta abian jartzeko.

Europar Batasunean eta Osasun Sistema Nazionalaren Buru-osasunari buruzko Estrategian –Osasun Departamentuak estrategia hori arlo guztietan aplikatzeko konpromisoa hartu zuen– lehentasuna ematen zaio buru-osasunari osasunaren arloan, eta proposatzen da beharrezkoa dela ikuspegi integratu bat, zeinak kontuan hartuko baititu buru-osasunaren sustapena, buruko nahasteen prebentzioa, diagnosa eta gaixoen tratamendua.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, aipatu jabelduraren haritik, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du buru-osasunarekin zerikusia duten zenbait ekintza abian jar ditzan, hala nola:

1. Buru-osasunaren Plan Integrala abian jartzea. Plan horrek ondokoak jasoko ditu:

a. Haur eta Gazteei Laguntzeko Plana gauzatea eta horretarako behar den dirua jartzea.

b. “San Frantzisko Xabierkoa” Zentro Psikogeriatrikoaren Plan Zuzendaria gauzatea eta horretarako behar den dirua jartzea.

c. Nafarroako buru-osasunerako sareko baliabideak berrantolatzea eta erabakitze gaitasuna duen entitate bakar baten mende jartzea, dauden baliabideak hobeto koordinatze eta optimizatze aldera.

2. Plan Soziosanitarioa berrikustea eta buru-osasunaren arloan inkardinatzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten du, eta Senatuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen du.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten baitu, eta Senatuko Mahaiaren erabakiak bete ditzan premiatzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eledun Carlos García Adanero jaunak Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Parlamentuak hautaturiko senatari autonomiko Francisco Javier Tuñón jauna Senatuko Mahaiak Talde Mistoaren funtzionamenduari buruz hartutako erabakia betetzearen aurka agertu da. Jarrera horrek ekarri du Nafarroan hautatutako UPNko senatari María Caballero andrearen defentsa-gabezia, azken hauteskunde orokorretan foru erkidego honetan botu gehien eskuratu zuen senataria izan bazen ere.

Ez da senatari autonomikoak bere interes politikoak Nafarroako interes orokorren ginetik jarren dituen lehenengo aldia. Nahikoa da gogora ekartzea Rodríguez Zapaterori jarri zion jabeldura, Nafarroan berak "aurrerabideko Gobernu" deituriko galarazi izanari buruzkoa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Tuñón jaunak Senatuan izandako jarrera politikoa gaitzesten du, eta premiatzen du Senatuko Mahaiak hartutako erabakiak bete eta bere jardunean Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartutako erabakiak errespeta ditzan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Eleduna: Carlos García Adanero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarrera irmo, eragingarri eta arduratsua izan dezan, Nafarroako erakundeek kudeatu eta jaso beharreko gai eta eskumen guztiak Espainiako Gobernuari exijitzerakoan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita jarrera irmo, eragingarri eta arduratsua izan dezan, Nafarroako erakundeek kudeatu eta jaso beharreko gai eta eskumen guztiak Espainiako Gobernuari exijitzerakoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramirez Errok eta Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, 2009ko martxoaren 12an eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Askotan nabarmendu da norainoko garrantzia duen gaur egun dugun autogobernu maila baliatzea gure herritarrentzat ahalik eta ongizate eta aurrerabide maila onena lortze aldera.

Zalantzarik gabe, badira oraindik eskualdatu gabeko eskumenak eta oraindik egiteko dago gure

arabide juridiko-politikoaren erreforma bat, guri dagozkigun eta herritarren interesekoak diren gaien inguruan erabakitze eskubide eta ahalmen sakonduko duena.

Hala ere, eta are nabarmenago krisi ekonomiko egoera honetan, zeinetan oso garrantzitsua izanen bailitzateke erabakiak hartzeko ahalmena baliatzea oraindik baliatu gabeko arloetan, hala nola berrikuntzaren arloan, zeharkako zergenean edota enplegu-politika pasiboan kudeaketan aurrerabide ekonomikoa sustatzeko berariazko neurriak hartzeko eta gaur egun pertsona eta familia asko jasaten ari diren egoera arintzeko, parlamentu-talde honek antzematen du Nafarroako Gobernuak pasibotasun eta axolagabekeria desegokiaz jokatzen duela Espainiako Gobernuari eskatzerakoan behar bezalako arintasuna izan dezan hitzarmenak sinatzeko edota foru erkidego honen beharrezan asetzeko, adibidez, zor jaulkipena handitzeko aukera eta zenbait eskumenen eskualdatzea bezalako gaietan.

Hori guztia dela-eta, 2009ko martxoaren 12ko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorio gisa, parlamentu-talde honek honako erabaki-proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du jarrera irmo, eragingarri eta arduratsua izan dezan, Espainiako Gobernuari exijitzerakoan eman ditzala Nafarroako erakundeek, berezko eskubidez, jaso eta kudeatu beharreko gai eta eskumen oro, funtsezkoak baitira gure herritarren gizarte-aurrerapena eta ongizatea ziurtatzeko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramirez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren seme kutun izendatu baitzen Tomás Domínguez Arévalo, Rodeznoko kontea.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita baliogabetu eta indarrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren seme kutun izendatu baitzen Tomás Domínguez Arévalo, Rodeznoko kontea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Mozioaren zioak

1. Oroimen Historikoaren Legeak sinbolo frankisten nola Franco diktadorearen altxamendu, ondoko gerra zibil eta diktaduraren zapalketarekin zerikusia duten elementuen goraipamen publikoa arautu da.

52/2007 Legeak, abenduaren 26koak, Oroimen Historikoari buruzkotzat ezagunak bere zioen azalpenean honako hau dio:

Se establecen, asimismo, una serie de medidas (arts. 15 y 16) en relación con los símbolos y monumentos conmemorativos de la Guerra Civil o de la Dictadura, sustentadas en el principio de evitar toda exaltación de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura, en el convencimiento de que los ciudadanos tienen derecho a que así sea, a que los símbolos públicos sean ocasión de encuentro y no de enfrentamiento, ofensa o agravio.

Eta Lege horrek, bere 15. 1 artikuluan honela ezarri du:

Las Administraciones públicas, en el ejercicio de sus competencias, tomarán las medidas oportunas para la retirada de escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas de exaltación, personal o colectiva, de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura. Entre estas medidas podrá incluirse la retirada de subvenciones o ayudas públicas.

2. 1952an Nafarroako Diputazioak Tomás Domínguez Arévalo jauna Nafarroaren seme kutun izendatu zuen.

Tomás Domínguez Arévalo Rodeznoko konte-riaren zazpigarren titularrak 1932an Sanjurjo jeneralaren altxamendu militarrean alde parte hartu zuen eta Gerra Zibilaren sustatzaileetako bat eta gerra ondoko zapalketa frankistaren eragileetako bat izan zen. 1938an Francisco Francok bere lehen Gobernua osatu zuen inolako legitimitate demokratikorik gabe eta estatu demokratikoaren kontra. Francok Tomás Domínguez Arévalo, Rodeznoko kontea, izendatu zuen lehen gobernu frankista horretako Justizia ministro.

3. 52/2007 Legeak aipatzen duen menciones conmemorativas horietan Nafarroaren seme kutun izendapena sartzea dago.

4. Parlamentu honek mozio honetan proposatzen den antzeko erabaki abt hartu zuen 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran. Erabaki horretan Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiau zuen 1974an Nafarroako Foru Diputazioak Francisco Franco Bahamonde Nafarroaren adopziozko seme izendatu izana baliogabetu eta indarrik gabe utz zezala.

Hori horrela, mozio hau aurkeztu nahi dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu eta indarrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren seme kutun izendatu baitzen Tomás Domínguez Arévalo, Rodeznoko kontea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, Aitaren Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die gizonezkoei aita ardurakideak izan daitezen eta balia ditzaten familia zaintzeko aitatasun baime-nak, eszedentziak eta lanaldi murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du beharrezkoa dela publizitatearen edukiak kontrolatzea, ez daitezen sexistak, baztertzailak edo estereotipatuak izan.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du lan egiteko, gizonezkoak inplika daitezen familiaren zaintzan eta etxeko lanen banaketan.

4. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako erakundeei, bereziki Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eta Hezkuntza Departamentuari, prestakuntza- eta kontzientziazio-jarduerak susta ditzaten, ardurakidetzaren inguruko sensibilizazioa eta heziketa areagotzen laguntzeko, egiazko gizarte igualitarioa lortze aldera.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa dela-eta duen asmoari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa dela-eta duen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

"San Frantzisko Xabierkoa" zentro psikogeriatrikoan lan plan bat ezarri zen, eta haren ondorioz "San Frantzisko Xabierkoa" Plan Estrategikoa onetsi zen.

Plan hori gauzatzeko 500.000 euro zeuden, eta, horretaz gain, 9 milioi euro inguru aurreikusen ziren aldez aurretik eginiko planaren ildo estrategikoak gauzatzeko.

Gainera, jakin dugu Mensor izeneko enpresari enkargua egin zaiola, zentro psikogeriatrikoari buruzko beste azterlan bat egin dezan.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi genuke:

- Zer asmo du Nafarroako Gobernuak San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa dela-eta?

- Zenbat denbora beharko da, Osasun Departamentuaren ustez, San Frantzisko Xabierkoan Buru-osasunari buruzko Plan Estrategikoa garatzeko ekintza berriren bat abian jartzeko?

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Etxeko Ospitaleratze Unitatearen egoerari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Etxeko Ospitaleratze Unitatearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

2008ko aurrekontuetan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen zuzenketan bat onetsi zen, Tuterako Reina Sofía Ospitalean ospitaleratze psikiatrikorako unitate bat sortzeko.

Zein da, gaur egun, unitate horren egoera?

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia finantzatzeko hitzarmen bat sinatzeari dagokionez Espainiako Gobernuak duen jarrera dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia finantzatzeko hitzarmen bat sinatzeari dagokionez Espainiako Gobernuak duen jarrera dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Parlamentari honek jakin du, Nafarroako prentsaren bidez, Nafarroako Gobernuak zenbait kidek egonezina agertu dutela Espainiako Ekonomiako ministro Solbes jaunaren hitzen ondorioz; izan ere, ministroak zalantzan jarri zuen berehala sinatuko denik Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia egiteko beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntza finantzatzeko hitzarmena, horretarako konpromisoa hartua bazuen ere.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia finantzatzeko hitzarmen bat sinatzeari dagokionez Espainiako Gobernuak duen jarrera dela-eta?

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkorik jartzen Nafarroako Gobernuko liburuzainek lanaldi-murrizketak eta bajak hartzen dituztenean.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkorik jartzen Nafarroako Gobernuko liburuzainek lanaldi-murrizketak eta bajak hartzen dituztenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion batzordean erantzun dezan.

Zergatik ez da ordezkorik jartzen Nafarroako Gobernuko liburuzainek lanaldi-murrizketak eta bajak hartzen dituztenean? (Esate baterako, Zizur Nagusiko liburutegian).

Zergatik ez dago koordinazio hoberik Funtzio Publikoarekin?

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Uharte eta Burlata arteko Arga ibaiaren bazterrean egiten ari diren obretarako ingurumen-baimenik eman al du Landa Garapeneko eta Ingurumen Departamentuak.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Uharte eta Burlata arteko Arga ibaiaren bazterrean egiten ari diren obretarako ingurumen-baimenik eman al du Landa Garapeneko eta Ingurumen Departamentuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, azaroaren 26rako eta 27rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak erantzun dezan:

Uharte eta Burlata arteko Arga ibaiaren bazterrean egiten ari diren obretarako ingurumen-baimenik eman al du Landa Garapeneko eta Ingurumen Departamentuak?

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko zer urratsak eman dituen Nafarroako Gobernuak hizkuntza programaren eskaera asetzeko.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer urratsak eman dituen Nafarroako Gobernuak hizkuntza programaren eskaera asetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria

Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi, Hezkuntza Departamentuak aitortu zuen ez dagoela irakaslerik atzerriko hizkuntza duten programa elebidunak edo eleanitzak ezartzen jarraitzeko, atzerriko hizkuntzan irakasteko beharrezkoa den maila duten irakasleak falta direlako.

Guk ere uste dugu ingeles maila hobereana izatea nahitaezkoa dela, eta helburu hori lortzeko denbora behar dela. Hala ere, zer urrats egin ditu Hezkuntza Departamentuak hizkuntza programaren eskaera asetzeko behar bezala gaitutako nahikoa irakasle izate aldera?

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2009rako duen aurreikuspena, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatiaren gastuari, obren lizitazioari eta obrak egiteari dagokionez.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2009rako duen aurreikuspena, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatiaren gastuari, obren lizitazioari eta obrak egiteari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion

Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Solbes ministroak iragarri du Nafarroak Estatuarekin duen Hitzarmen Ekonomikoak ez duela aukerarik ezartzen foru erkidegoak Estatuari egiten dion ekarpenetik Abiadura Handiko Trenaren inbertsioa kentzeko. Nafarroako lehendakariak, berriz, iragarri du Nafarroak azpiegitura horri dagozkion ordainketak aurreratuko dituela, kreditu baten bidez.

Hori dela eta, jakin nahi dugu:

Zein da Nafarroako Gobernuak 2009rako duen aurreikuspena, Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatiaren gastuari, obren lizitazioari eta obrak egiteari dagokionez?

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarrizko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat denbora igarotzen den oinarrizko errenta eskatzen denetik egiaz jasotzen den arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko errenta izapidetzeari buruzko galdera

1. Zenbat denbora igarotzen da pertsona batek oinarrizko errenta eskatzen duenetik jasotzen duen arte?

2. Denbora luzeegia dela uste al duzu? Zer dela eta behar da hainbeste denbora?

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako kontusailaren zuzkidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan 80.000 euroko kontusail bat dago Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik kontusail hori handitzeko?

2.- Izanen al da kontusail berririk Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmenerako?

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kultura Ministerioak Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala abiarazi izanari eta Foru Komunitatea autonomia erkidegoen hasierako zerrendatik kanpo geratu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtuala da Espainian egin den digitalizazio proiektu nagusietako bat, eta garrantzi handia du nazioartean, bai bere bolumenagatik, bai bere funtzionaltasunagatik.

Proiektua gauzatzeko, lankidetzan aritu dira Liburuaren, Artxioben eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusia –Liburutegien arteko Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusiaren bidez–, autonomia erkidegoak, izaera zientifiko eta kulturaleko zenbait erakunde –ateneoak, fundazioak eta unibertsitateak–, bai eta XIX. mendean eta XX. mendean hasieran sortutako zenbait egunkari ere.

2008ko apirilean, ia 2.000 goiburu eta 45 liburutegi daude eskura, prentsa inprimatu zen 140 herritako 3.906.000 orrialderi dagozkienak.

Gehienak bilduma paregabeak dira, ikertzaileentzat eta, oro har, jendearentzat interesa dutenak. Gai desberdinak lantzen dituzte eta historiako aldi zabal bat hartzen dute, XVIII. mendean amaieratik hasita.

Datu baseetan agertzen dira hamabost autonomia erkidegotako –Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariar Uharteak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta León, Katalunia, Valentzia, Extremadura, Galizia, Balear Uharteak, Errioxa, Madril, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Murtzia–, 45 probintziako eta 140 herritako datu baseetan agertzen dira. Kultura Ministerioaren asmoa da datu basean oraindik agertzen ez diren autonomia erkidegoetako eta probintzietako bildumak gehitzea pixkanaka.

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitatea ez dela zerrenda horretan agertzen, Nafarroari buruzko datu partzialak agertzen badira ere, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Galderaren testua

1.- Nafarroako Gobernuak hasi al du elkarrizketarik Kultura Ministerioarekin aipatu liburutegi birtualean sartzeko? Hala bada, jakin nahiko nuke zer administrazio-urrats egin diren eta noiz.

2.- Kultura Ministerioak gonbidatu al du Nafarroako Gobernua liburutegi birtual horrekin bat egitera? Hala bada, adierazi Ministerioak noiz igorri zuen gonbita.

3.- Zergatik da Nafarroa liburutegi birtualean parte hartzen duten entitateen zerrenda ofizialean agertzen ez diren erkidego bakarretakoa? Hori justifikatzen duten arrazoiak zeintzuk diren jakin nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedientei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legearen arabera oinarrizko errenta ukatzeko espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Baztertutako oinarrizko errentari buruzko espedientei buruzko galdera.

Baztertutako espedienteetatik, zenbat dagozkie Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko uztailaren 2ko 13/2008 Foru Lege proposamenean eskatzen den gutxieneko erroldatze-denborara iristen ez diren pertsona etorkinei?

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Lizarrako iparraldeko saihebidetaren gaineko azterlanari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako iparraldeko saihebidetaren gaineko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren web orrian agertzen dira Nafarroako 2007ko kontu orokorrak. Kontu horietan, zehazki Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko programen oroitadazkiaren 4. orrian, Errepideei buruzko Azterlanak eta Proiektuak izeneko atalean, agertzen 2007ko martxoaren 21ean esleitu zela, 68.556 euroko aurrekontuarekin, "Lizarrako Iparraldeko Saihebidetaren informazio azterlana." Gainera, agertzen da azterlan hori publikotasunik gabe negoziaturiko

prozeduraren bidez esleitu zela eta zenbateko osoa 2007 urteari zegokiola.

Departamentuaren estatistiketan, berriz, 613001 kodea duen "Herri Lanetarako Inbertsioen eta Kontratazioei buruzko Estatistikak" agiriaren "2007an esleitutako laguntza-kontratuen zerrenda osoa" atalean, 18. proiektua da "Lizarrako iparraldeko saihebidetaren alternatibei buruzko azterlan" izenekoa, Maesic, S. L. Enpresari esleitu zitzaiona.

Agiri berean, "2007an likidatutako laguntza-kontratuen zerrenda osoa" atalean, aipatu azterlan agertzen da berriro, 22. proiektuan, eta, horren arabera, 2008ko urtarrilaren 11n likidatu zen.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren informazio horretatik abiatuta, parlamentari honek Lizarrako iparraldeko saihebidetaren alternatibei buruzko azterlan horren kopia eskatu zion departamentuari. Kontseilari andreak erantzun zion ez zela "Lizarrako iparraldeko sai-

hebidetaren alternatibei buruzko azterlan" izeneko agiririk idatzi, eta, beraz, ezin ziola horren kopiarik eman.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Zergatik ez da idatzi oraindik Lizarrako iparraldeko saihebidetaren alternatibei buruzko azterlanik, azterlan hori 2007ko martxoaren 21ean esleitu bazen eta, antza denez, 2008ko urtarrilaren 11n likidatu bazen?

b) Azterlan hori 2007 esleitu al zen? Azterlan hori ordaindu al da?

b) Zer epe aurreikusten duzue azterlan hori betetzeko?

d) Idatzita balego, azterlan horren kopia bat jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako III. Enplegu Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008 urtera luzatu den 2005-2007 urteetarako Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Plana-

ren 9. atalean ezartzen da Enplegu Planaren koordinazioa, ebaluazioa eta jarraipena.

Plan horren indarraldia duela gutxi amaitu denez, hau jakin nahi dut:

a) Zeintzuk dira jarritako helburuen betetze-maila eta horretarako egin diren ekintzen eraginkortasuna neurtzeko ezarri diren neurri-adierazleak?

b) Noiz osatu zen Lan zuzendari nagusia buru duen eta planaren sinatzaileek osatzen duten Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea?

c) Nortzuk izan dira batzorde horren kideak, zenbat denboraz eta zein entitate ordezkatzuten?

d) Zein egunetan eta nor bertaratuta bildu da batzorde hori Nafarroako III. Enplegu Plana sinatu zenetik?

e) Batzorde horretako kideek ordainsaririk jaso al dute edozein kontzepturengatik batzordearen bileretara joateagatik? Nortzuk eta zenbat?

f) Jarritako helburuen betetze-maila eta horretarako egin diren ekintzen eraginkortasuna neur-

tzeko ezarri diren neurri-adierazleekin eginiko urteko ebaluazioen eta balorazioen kopia eskuratu nahiko nuke.

g) Nafarroako III. Enplegu Planaren Jarduera Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen

Batzordearen bileren akten kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa
Imaz

Galdera, PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, PA-30 errepideko 10. kilometrotik 13. kilometrora bitarteko zatiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideen II. Planean ez da inolako jarduerarik aurreikusten PA-30 errepideko 10. km puntutik 13. km puntura bitarteko zatirako.

Kontuan hartuta errepide horretako asfaltoaren egoera:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik PA-30 errepideko zati horretan hobekuntzarik egiteko epe laburrean?

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Iruñerriko bionergia arloko enpresa bati 600.000 euroko abala eman izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

2009ko martxoaren 9ko bilkuran, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen 600.000 euroko abala –enplegua sortzeko inbertsiorako laguntzetarako aurreikusitako gehieneko kopurua– emateko Iruñerriko bioenergiako enpresa bati, 2.221.000 euroko inbertsio bat egiteko. Hori da eman den hirugarren “Nafarroa Abala”, autogintzaren arloko enpresa osagarri bati eta plastikoen enpresa bati otsailaren 16an eta otsailaren 23an, hurrenez hurren, emandakoen ostean.

- Zein da 600.000 euroko abala jaso duen Iruñerriko bioenergiako enpresa hori?

- Diruz lagundutako proiektuaren kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Industriako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ibilgailuetako aurreko eta alboetako leihoetako beira eguzki-fotobabesleak homologatzeko eskumenari buruzko galdera.

Nori dagokio aipatu tresnen homologazioa, eguzkiak lupus gaixotasuna duten pertsonei egiten dien kaltea arintzeko?, Industria Departamentuari edo Estatuko Gobernuari?

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuko lehendakariari igorritako gutunetan ezarritako helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek jakin du, Nafarroako prentsaren bidez, Nafarroako Gobernuko zenbait kidek egonezina agertu dutela Espainiako Ekonomiako

ministro Solbes jaunaren hitzen ondorioz; izan ere, ministroak zalantzan jarri zuen berehala sinatuko denik Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako zatia egiteko beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntza finantzatzeko hitzarmena, horretarako konpromisoa hartua bazuen ere.

Adierazpen horiei erantzunez, Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragarri du "beste gutun bat" bidaliko diola Espainiako lehendakari Rodríguez jaunari. Erantzun honek harritu egin nau, are gehiago Gobernuko lehendakari Sanz jaunak "gamazadarako" dei egin zuenean 2005eko abenduan, Espainiako Gobernuaren jarrera baldintzatze aldera, finantzaketarako hitzarmena sinatzean.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Lehena: Nafarroako Gobernuak Espainiako lehendakari Rodríguez jaunari "beste gutun bat" bidalita lortu nahi dituen helburuak.

Bigarrena: aurreko gutunak bidalita lortu diren helburuen zehaztapena.

Hirugarrena: Nafarroan AHTaren obrak egin ahal izateko finantzaketa dela-eta Espainiako lehendakari Rodríguez jaunari bidalitako gutun bakoitzaren kopia jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

